
GABONAK EUSKAL ERRIAN

Gabonak, Eguberri-jaiak. Izen auek burutapen goxoak ekartzen dizkigute.

Urtean zear etxeako alkar ikusteko astirik gabe ibiltzen ba'gera ere, urte-garai onetan, nolabait alkarrengana biltzen gera.

Egun auetan, gure lantokietan jaiak artzen ditugu; ikasleak oporretan izaten gera, eta abar.

Gabon eta Eguberri-garaian, giroak eta eguraldiak beren aldetik pixkat laguntzen ba'digute, barru-giro ederrean, senideok gurasoen inguruan, txolarte ederrik izan oi dugu.

Baiñan, Eguberri-garai au nundikakoa eta noiztikakoa da?

Kristautasuna zabaldu zan ezkeroztik, Egeberri eta bere ondorengo egunak, Berri Onaren esanetara kutsatu ziran: Kristo jaio zan, aska batean otzak dardarka gaiñera; Jainkoaren Semea zan eta, urruti bizi ziran Azti (Mago) batzuek, izar berezi bati jarraiki, bordatxoraiño iritxi, ta gurtu ondoren, opariak eskeiñi zizkioten, eta abar.

Baiñan, egia esan, Kristoren jaiotza zein urte-garaitan izan zan ez zaigu esaten, (Kristo jaio zanean otz egiten zuela, ta artzaiak mendian izarpean zeudela), nun jaio zan bakarrik baizik.

Eta ospakizun au Elizak urte-garai onetan zergatik jarri ote zuen?

* * *

Euskal erria zortzigarren gizaldi aldera kristautu zala esaten dute.

Ordura arte, noski, euskaldunak norbaitengan edo zerbaitengan siñistuko zuten bada?

Bai orixe, euskaldunak siñistunak ziran, beren Jainkoa eguzkia zan eta eguzkia gurtzen zuten.

Urtean zear, eguzkiaren omenez zenbait jai ospatzen zituzten: Uda-mugan (Solsticio de verano) bat, eta negu-mugan (solsticio de invierno) bestea. Esan bezela, euskaldunak beren jainkoa goraltzen saiatzen ziran.

Kristautasuna eta munduan ordurarte zeuden beste sinismenak alkarren aurkakoak ziran.

Beraz, kristautasuna erri arrotzetara irixten zanean, erri aiek ordura arte bizi zituzten sinistekin zer egin?

Arazoa egun batetik bestera zuzentzeko baiño geiago zan.

Garai artan kristau-erantzukizuna zutenek ziur asko beltzak ikusi bearke zituzten, noski, baiñan arazoari irtenbide ona arkitu zioten: esate baterako, euskaldunek ordurarte zituzten sinistek erabat arbuaiatu edo gaitzetsi bearrean, euskal erriari ordura arte zituan oituretan jarraitzeko bide eman zitzaion.

Eta Eguberriak gaur duten esanaia izan aurretik, euskal errian, urte-garai onetan jairik ospatzen ote zan bada?

Bai, ain zuzen, negu-buru edo negu-mugako jaiak ospatzen ziran. Beraz, jai ei len ematen zitzaien kutsua aldatu. Eguzkiaren orde kristauen Jainkoa sartu, eta kito.

Len esan bezela, aldaketa au etzan (ez zan) ain erreza gertatuko, baiñan, pixkanaka, kristautasuna sendotzen joan zan bezela, arazoak gairitu al izan ziran.
* * *

Gaur egun (gure egunetan), Eguberri-garaian Kristoren jaiotzarekin zer ikusirik ez daukan izen bat aipatzen dugu euskaldunok: Olentzero.

Urte-garai onetan, jai auetan gizandi (personaje) au aipatzea, euskal erria kristautu baiño lenagoko oituren arrasto bat da.

Olentzero buru aundia
entendimentuz jantzia
bart arratsian edan omen du
host arruako sagia.

edo beste au:

Olentzero joan zaigu
mendira lanera
intentziyuarekin ikatz egitera.
Adu zuenian Jesus jaio zala
laisterka etorri zan berri ematera.

Adibide auetan konturatuko zerate: Olentzero, berez, Kristoren jaiotzarekin zer ikusi gutxiko gizona da, alako zati batean Kristoren jaiotza aitutzen duen arren.
* * *

Negu-muga onetan, euskaldunek urte berriaren antzeko zerbait ere egiten zuten. Ain zuzen, orain Gabon eguna ospatzen dugun egunean: etxe ko sua berritzen zuten.

Bai, lengo euskaldunentzat, Abenduaren 24an urte berria asten zan. Orretarako Abenduaren 23a urte-zar bezela zan, eta sutan zeukaten enbor (tronco) zarra kendu, ta "urte-berri, su berri", enbor berria sartzen zuten; eta sutako autsa ukuilluan zabaltzen (ekintza onek ere bere esanaia ba-zuan-eta).

Beraz, gaur egun ospatzen ditugun Gabon, Eguberri, Urte zar, Urte Berri ta abar, garai bateko euskaldunek ospatzen zituzten jaien ospakizunak dira, kristau-kutsua emanda, noski.

Ludiko beste errietan ere, kristautasuna zabaltzen zi-joan bezela, antzeko aldaketak egin ziran.

URRESTARAZU'tar Andoni (+)